

# Euskara biziberritzeko politika publikoak: Zeharlerrotasuna ulertzeko ikuspegi berri baten proposamena

2023ko ekaina



Euskararen Aholku Batzordeko  
Hizkuntza eta Generoa Batzorde-  
atal Berezia

**EUSKO JAURLARITZA**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Viceconsejería de Política Lingüística

# AURKIBIDEA

1. KOKAPENA.....	1
1.1. Aurrekariak .....	1
1.2. Berdintasuneko politika publikoetatik zeharlerrotasuna ulertzeko modua .....	3
2. EUSKARA BIZIBERRITZEKO POLITIKA PUBLIKOETATIK ZEHARLERROTASUNA ULERTZEKO IKUSPEGI BERRI BATEN PROPOSAMENA.....	7
2.1. Marko teorikoa .....	7
2.2. Lan-ildoak .....	9
2.3. Lehenengo urratsak emateko tresnak .....	10
3. HURRENGO URRATSAK .....	12

## 1.1.- AURREKARIAK

Euskararen Aholku Batzordearen Hizkuntza eta Generoaren Batzorde-atal Berezian **politika publikoen lantaldea** sortu genuen duela lau urte zeregin nagusi batekin, hots, euskara biziberritzeko eta emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko politika publikoak aztertzea, **elkarrengandik ikasi eta elkar indartzeko**; eragiteko gaitasuna handitzeko, alegia.

Bide honetan asko ikasi dugu elkarrengandik eta hobetzeko nahiz aliantzarako hainbat aukera identifikatu ditugu. Era berean, konturatu gara nahiz eta bi politikek zeharlerroko izaera izan eta zeharlerrotasunaz hitz egiten duten, **ez dutela berdin ulertzen eta praktikatzen zeharlerrotasuna**.

Oso hitz gutxitan esateko, **berdintasunean zeharlerrotasuna ulertu izan da sail eta arlo guztietan edukietan eta norabidean eragiteko tresna gisa**. Erakunde publikoen egiteko moduak eraldatzean jarri du azpimarra, beti ere, politika publikoen edukiak aldatzeko, eta, sail guztietatik egiten diren politika eta jardura publikoei berdintasuna bultzatzeko betebeharra ezarri. Berdintasuna bultzatzea sail guztien betebehara bilakatu du, horietatik diseinatu, garatu eta ebaluatzen diren politiken edukiak birpentsatzera bultzatuz.

**Euskara biziberritzeko politiketatik zeharlerrotasuna nola ulertu** izan den galdetuz gero, ez dago ikuspegi adostu eta kontsolidaturik. Modu ezberdinetan ulertzen da, baina, gehien bat erakunde publikoen barneko erabilera-planetan jarri da azpimarra. Erabilera-planen xedea **administrazio publikoaren jardura euskalduntzea** da, bai lan-hizkuntza nagusia euskara izango duten erakundeak sortzeko (arnasgune funtzionalak sortuz), bai herritarrei zerbitzua euskaraz eskaini ahal izateko. Barrura begira nahiz herritarrei begira euskara lan- eta komunikazio-tresna izango duen administrazioak izatea da xedea, azken finean. Hau guztia ezinbestean egin beharreko lana da, zalantzarik gabe, eta ez da erronka makala. Halere, zeharlerrotasunaren estrategia administrazioren jardura (edo administrazioren zerbitzuak eskaintzen dituzten azpi-kontratututako entitateen jardura) euskalduntzera soilik bideratzeak baditu muga batzuk; hori guztia egiten ari garen bitartean erakunde publikoetatik garatzen ari diren politika publikoak euskararen biziberritzearen aurkakoak izan baitaitezke. Hau da, bide horrek ez die euskara sailetik aparte garatzen diren politika publikoen edukiei eta hauen eragin linguistikoari erreparatzen.

Aurretik aipatutako norabidez gain, beste norabide batzuetan ere lan egin da, halere. Eta, era berean, **orain arte egindako lanak eta bideak ekarri gaitu dokumentu honetan mahai gaineratu dugun gogoetara**. Beraz, orain arte egindakoa gutxietsi ordez, orain arteko bidea eta lana aitortu eta horren gainean eraikitzen jarraitzeko proposamena da hau; **jauzi bat emateko proposamena**, hain zuzen. Dokumentu honetan proposatzen dugun ikuspegia ez da hutsetik abiatzen. Honetarako osagaiak aurkitu ditugu hainbat udalerritan egin izan diren lanketatan, berdintasuneko politika publikoetatik egiten ari den bidean eta Eragin Linguistikoaren Ebaluazioan (ELE), besteak beste. Azken tresna honek zeharlerrotasuna ulertzeko osagai berri bat ekarri digu, hainbat eremutatik egiten diren politika eta esku-hartzeen eragin linguistikoa neurtu eta neurriak proposatzen baititu euskararen biziberritzean eragin positiboa izan ditzaten. Euskara sailetik kanpo egiten diren politiken edukietara begira jarri gaitu, nolabait esateko. 6/2022 Legeak ere (ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena) zeharlerrotasuna bultzatzeko betebehara batzuk ezarri ditu norabide berean.

Honenbestez, **euskara biziberritzeko politika publikoetatik zeharlerrotasuna ulertzeko ikuspegian jauzi bat emateko aukera eta beharra** ikusi dugu. Ikuspegi berri hau lantzeko berriazko lantalde bat sortu dugu Euskararen Aholku Batzordeko Hizkuntza eta Generoa Batzorde-atal Bereziaren baitan eta lantaldean landutako proposamena da esku artean daukazuna. Balio beza euskara biziberritzeko politika publikoen zereginaz eta estrategiez hausnartzeko eta, azken finean, euskara biziberritzeko politika publikoak indartzeko.



## 1.2. BERDINTASUNEKO POLITIKA PUBLIKOETATIK ZEHARLERROTASUNA ULERTZEKO MODUA

Berdintasuneko politika publikoetatik zeharlerrotasunean egindako bidea ezagutzeak piztu digu euskaran ere jauzi bat egiteko behar genuen txinparta, nahiz eta ez den eragile bakarra izan. Atal honetan, hain zuzen, **berdintasunetik zeharlerrotasuna nola kontzeptualizatu eta garatu den jaso dugu**, mahai gaineratu nahi dugun ikuspegia hobeto ulertzen lagunduko duelakoan.

### 1.2.1. Marko teorikoa eta araudia

Lau printzipio nagusitan oinarritzen da:

1. **Politika publikoak ez dira neutroak.** Politika publikoek inpaktu positibo edo negatiboa izan ohi dute berdintasunean. Berdintasuna areagotzen lagundu dezakete edo, alderantziz, gaur egungo desberdinkeriak mantendu edo areagotu. Horrek esan nahi du berdintasun organoetatik at egiten diren politikek berdintasun organoetatik egiten direnek bezain besteko eragina (edo handiagoa) dutela berdintasunean.
2. **Ardura partekatua.** Aurrekoagatik, beharrezkoa da sail guztiek beren jarduera eta politiken bidez berdintasuna bultzatzeko helburua bere egitea. Beharrezkoa da sail guztien inplikazioa.
3. **Lankidetzza/elkarlana.** Lan egiteko moduak eraldatzea eskatzen du, sailen konpartimentazioa gainditu eta elkarlanean jardutea, arazoak eta konponbideak elkarrekin aztertuz.
4. **Prozesu teknikoa eta politikoa** da. Konpromiso politikoa eta prestakuntza (eta inplikazio) teknikoa eskatzen ditu.

Sail edo esku-hartze eremu bakoitzak **begirada zorroztea** dakar; norberaren jarduera **berdintasunarekin/desberdinkeriekin non gurutzatzen den ikusten** ikastea; arlo bakoitzak berdintasunarekin zer lotura duen ezagutzea. Desberdinkeriak non ematen diren ikusi eta, horiek aintzat hartuta, gure politika publikoak pentsatzea eskatzen du, desberdinkeria horiek murriztu ditzaten.


Esandako guztiagatik, zeharlerrotasuna **lan egiteko modu bat** da ere bada. Arazoak eta beharrak elkarlanean aztertu eta orain arte norberaren helburutzat ez geneukan helburu bat (berdintasuna) bere egitea dakar; sailen konpartimentazioa gainditzea, planifikazioa eta ebaluazioa, koordinazioa eta elkarlana.

**Prozesu teknikoa eta politikoa** da, aldi berean. Beharrezkoa da inplikazio politikoa eta teknikoa. Konpromiso politikoak esan nahi du berdintasuna erdigunean jartzea, lehentasuna ematea, berdintasuneko egiturak sortzea, egonkortzea eta indartzea, araudi eta plangintzak lantzea, eta, aurrekontuak eta bitartekoak jartzea. Era berean, beharrezkoa da inplikazio teknikoa eta teknikarien trebakuntza, begirada berriak txertatzeko eta lan egiteko moduak aldatzeko inor ez baitago aurrez prestatuta. Aldaketa nahi bada, beraz, egiteko moduak aldatu behar dira; berdintasuna ez baita berez etorriko.

## Hortaz, zer esan nahi du zeharlerrotasunez lan egiteak?

Politika publiko eta jarduera guztietan berdintasunaren printzipioa/helburua txertatzea esan nahi du, hots, erakunde publiko guztiek (eta hauen baitako sail guztiek), ordura arteko helburuez gain, berdintasuna bultzatzea ere bilatu beharko dute. **Jadanik ez da nahikoa sexua-generoagatik ez diskriminatzea; berdintasuna modu aktiboan sustatzea dagokie.**

## Araudi-markoa



Paradigma-aldaketarekin, berdintasuna bultzatzeko **estrategia duala** abiatu zen eta gaur egun horrela ulertzen dira berdintasuna bultzatzeko politikak: batetik, berdintasuneko politika espezifikoak eta, bestetik, zeharlerrotasunaren estrategia. Azken honek politika publiko guztien norabidean/zentzuan eragitea eta egiteko moduak aldatzea dakar eremu guztietan.


## Nola egiten da?

Politika eta ekimen guztietan aintzat hartu behar dira **emakumeen eta gizonen abiapuntuko egoera, arazo eta beharrak** (modu berezitan) eta desberdinkeria horiek gainditzeko eta **berdintasuna sustatzeko helburua eta ekintza zehatzak txertatu behar dira geure jardueraren fase guztietan**: egitasmoen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan.

### 1.2.2. Lan-ildoak:

Zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko ezinbestean garatu beharreko lan-ildo edo ardatzak adostasun-maila handia dute eta kontsolidatuta daude. Hauek dira:

1. **Konpromiso politikoa:** araudiak, aurrekontuak, plangintzak, berdintasun-unitateak
2. **Berdintasunerako trebakuntza** erakunde publikoetako langile eta arduradun politikoentzat
3. **Genero-ikuspegia lan-prozeduretan**
4. **Koordinazioa eta elkarlana:** koordinazio-egitura iraunkorrak
5. **Parte-hartzea eta eragina:** ordezkaritza orekatua, gizarte mugimenduekin zubiak eta elkarlanerako espazioak...



**Genero-ikuspegia lan-prozeduretan txertatzeko lan-ildoak osatzen duten alderdien azalpena:**

#### a. Informazioa sortu eta kudeatu:

Erakunde publikoen jarduera guztian genero-ikuspegia txertatu ahal izateko lehenengo urratsa da, nolabait. Hiru dimentsio hauek hartu behar dira aintzat:

1. **Datuak bereizita jaso:** Egoera zein den ezagutu behar dugu, horretan eragin ahal izateko. Horrek eskatzen du datuak eta biltzen dugun informazioa sexua-generoaren arabera bereizita jasotzea, desberdinkeriak identifikatu ahal izateko. Datuak bereizi gabe aztertzen baditugu, ezin ditugu desberdinkeriak identifikatu eta desberdinkeriei itsu ariko gara.
2. **Genero-adierazleak:** Datuak bereizteaz gain, beharrezkoa izan daiteke ordura arte neurtzen ez genituen adierazleak txertatzea (genero-adierazleak), genero-desberdinkerien inguruko informazio xeheagoa eskuratzeko. Geure buruari galdetu behar diogu ea eskura ditugun adierazleak nahikoak diren eta beste informaziorik behar dugun.
3. **Datuen irakurketa:** Datuak/informazioa genero-betaurrekoekin irakurri. Bildutako informazioa irakurri egin behar dugu, genero-desberdinkeriak identifikatu eta geure politiken bidez horietan nola eragiten dugun jabetzeko.

**b. Enplegu publikoa:**

Hautaketa-prozesuak aztertzea eta genero-alborapenik izan ez dezaten egokitzea, hautaketa-prozesuetan berdintasuneko edukiak txertatzea, promozio-prozesuak aztertzea eta erakunde publikoetako langileen egoera aztertzen duten barne-diagnostikoak lantzea (lanpostuen balorazio-prozesuak barne), desberdinkeriak identifikatzeko eta neurri zuzentzaileak txertatzeko.

**c. Komunikazio berdinzalea:**

Erakundearen balioak eta mundu-ikuskerara islatu eta indartzen ditu.

**d. Araudiak eta ordenantzak:**

Araudiak eta ordenantzak ere ez dira neutroak. Horretaz jabetzeko eta arau hauen bidez desberdinkeriak areagotzea nahiz mantentzea saihesteko tresna garrantzitsua da Genero Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa (GEAE). Berdintasunerako Legeak arau eta ordenantzen GEAE egitera behartzen ditu erakunde guztiak, hauek onartu aurretik.

**e. Sektorekako eta zeharkako planak:**

Sail eta alor bakoitzeko jarduera aztertu eta horietan genero-ikuspegia txertatzea esan nahi du; eta gauza bera zeharkako planekin.

**f. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenak:**

Kontratu publikoak nahiz dirulaguntza eta hitzarmenak berdintasuna bultzatzeko tresna gisa baliatzea esan nahi du, berdintasun-klausulen edo betebeharren bidez.

**g. Genero-ikuspegidun aurrekontuak:**

Aurrekontuen genero-inpaktua aztertzea esan nahi du, berdintasuna bultzatzen duten aurrekontuak diren edo, alderantziz, desberdinkeriak mantentzen edo areagotzen dituzten politiketara bideratuta dagoen ezagutzeko eta, beharrezko bada, neurri zuzentzaileak txertatzeko.



## 2.1.- MARKO TEORIKOA

### ZERGATIK ZEHARLERROTASUNA? NEUTRALITASUN EZA

**Euskara sail edo organoetatik kanpo hartzen diren erabakiek euskara sailetik hartzen diren erabakiek bezainbesteko eragina (edo handiagoa) dute euskararen biziberritzean** eta, zehazki, euskara eta hizkuntza hegemonikoa den gaztelaniaren arteko harremanetan. Izan ere, jarduera eta politika publikoak ez dira neutroak; positiboki edo negatiboki eragiten dute euskararen biziberritzean eta hizkuntzen arteko botere-harremanetan. Desorekak murrizten lagun dezakete edo, alderantziz, horiek mantentzen edo indartzen.

Garatzen ditugun politika publikoek euskararen biziberritzean eta hizkuntzen arteko botere-harremanetan nola eragiten duten ezagutzen ez badugu edo ohartzen ez bagara, hizkuntza-menderakuntzarekiko itsu ariko gara eta, gehienetan, inertzia, gaur egungo botere-harremanak mantentzen edo areagotzen ariko gara.

Euskara sailetik at garatzen diren politikak neutroak ez diren neurrian, beharrezkoa da sail horiek ere euskararen betaurrekoak jantzi eta beren politiken bidez euskararen biziberritza bultzatzea.

### NOLA ULERTZEN DUGU ZEHARLERROTASUNA?

**Politika publiko eta jarduera guztietan euskara biziberritzearen printzipioa/helburua txertatzea** esan nahi du, hots, ordura arteko helburuez gain, erakunde publikoek (eta horien baitako sail guztiek) euskararen biziberritza bultzatzea ere bilatu beharko dute.

Horrek esan nahi du erakunde publikoetatik zeharlerrotasunaren aterkipean orain arte nagusiki landu izan diren alderdiez gain (lan-prozesuak euskalduntzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzua euskaraz eskaintzea eta horren guztiaren ardura eta kudeaketa erakundearen erantzukizun bihurtzea), beharrezkoa dela sail guztietatik diseinatzen eta garatzen diren jarduera eta politika publikoetan begirada pausatzea. Aztertzea politika publiko horien edukien bidez nola eragiten dugun euskararen biziberritzean, hau da, hizkuntzen arteko botere-harremana mantendu, indartu edo murrizten dugun ezagutu eta neurri zuzentzaileak ezartzeko.

**Politika eta jarduera publiko guztien norabidean eragitea** esan nahi du; guztiak lerratzea euskara biziberritzeko helburuarekin. Ondorioz, ez da nahikoa erakunde publikoek euskal hiztunak ez diskriminatzea edo horien hizkuntza-eskubideak bermatzea. Beharrezkoa da erakunde publikoek eta sail guztiek euskararen biziberritza aktiboki bultzatzea eta politika guztiak helburu horrekin lerratzea.

Berdintasunean esaten den moduan, **estrategia duala** bultzatu nahi dugu. Batetik, beharrezkoa izango da euskara biziberritzeko propio pentsatutako politikak garatzea, euskara sailetatik bultzatuta; baina, bestetik, beharrezkoa izango da sail guztietatik egiten diren politikak euskararen betaurrekoekin aztertu eta hauek ere euskara biziberritzeko helburuarekin lerratzea.

**Zeharlerrotasuna lan egiteko beste modu bat** dela ere esan dezakegu, ezaugarri hauetan oinarritzen dena:

- **Erantzukidetasuna edo ardura partekatua.** Euskararen biziberritzea bultzatzea ez dagokio soilik euskara sailari. Sail guztien ardura da beren jarduera eta politiken bidez euskararen biziberritzea bultzatzea.
- **Elkarlana eta koordinazioa.** Sail bakoitzak konpartimentu itxi bat bezala lan egin ordez, gainerako sailekin elkarrizketan jarri eta elkarrekin pentsatu eta egitea. Emaitza ezberdinak lortu nahi baditugu, gauzak egiteko modua aldatu behar dugu.
- **Elkar aitortza.** Denok daukagu ezagutza baliotsua geure eremuan eta beharrezkoa zaigu diziplinarteko ikuspegi batetik errealitatea aztertzea politika publiko integralak eta eraldatzaileak garatzeko.

Era berean, politika eta jarduera publiko guztien norabidea birpentsatzea ere esan nahi du. **Begirada bat** ere bada, beraz. Sail edo arlo bakoitzaren jarduera euskara eta hizkuntza hegemonikoaren arteko botere-harremanekin **non gurutzatzen** den ikusten ikasi behar dugu; arlo bakoitzak euskararen biziberritzearekin zer lotura duen ikusi; desorekak non ematen diren ikusi eta, horiek aintzat hartuta, gure politika publikoak pentsatu, desoreka horiek murriztu ditzaten.

Zeharlerrotasuna, hortaz, estrategia bat da, **prozesu politiko-tekniko planifikatu bat** eskatzen duena, **egiteko moduak aldatzea bilatzen duena, politiken emaitzetan aldaketak lortzeko** eta, berauen bidez, egungo errealitatea eraldatzeko.

### **NOLA EGITEN DA?**

Politika eta ekimen guztietan **aintzat hartu behar dira eragin nahi den errealitatean euskarak daukan lekua eta zeintzuk diren hizkuntzen arteko botere-harremanak**; abiapuntuko egoera, arazo eta beharrak identifikatu; eta **desoreka horiek gainditzeko eta euskararen biziberritzea sustatzeko helburua eta ekintza zehatzak txertatu behar dira geure jardueraren fase guztietan**: egitasmoen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan.

Ezagutu behar dugu eragiten/esku hartzen ari garen eremuan zein den euskararen biziberritzearen egoera, non dauden desoreka nagusiak. Eta gure jardueraren bidez desoreka horiek murrizten lagundu behar dugu.

### **LABURBILDUZ, PRINTZIPIO HAUETAN OINARRITZEN DA:**

<b>Jarduera eta politika publikoen neutraltasun eza</b>	Eremu guztietatik egiten dugunak du eragina euskararen biziberritzean.
<b>Erantzukidetasuna edo ardura partekatua</b>	Beharrezkoa da sail guztien inplikazioa eta euskararen biziberritzea bultzatzeko helburua bere egitea.
<b>Lankidetzza/elkarlana eta koordinazioa</b>	Konpartimentu itxietan funtzionatzeko kultura gainditzea, arazoak eta horien konponbideak elkarrekin aztertuz eta landuz.
<b>Konpromiso politikoa eta inplikazio teknikoa</b>	Beharrezkoa da gaiari lehentasuna eman eta bitartekoak jartzea; sail guztien inplikazioa eta trebakuntzarekin batera.

## 2.2. LAN-ILDOAK

Dokumentu honetan **ez dugu sakondu zeharlerrotasuna modu honetan ulertuta gorpuzteko garatu beharreko lan-ildoetan**. Halere, berdintasuneko lan-ildoetan oinarrituta, hasierako proposamen bat jaso dugu, **nonbaitetik hasteko oinarri bat** eskaintzearen. Halere, atal honek lanketa sakonagoa eskatzen du, dudarik gabe.

1. **Konpromiso politikoa:** euskara biziberritzeko eta hizkuntza-irizpideak finkatzeko ordenantzak, plangintzak, aurrekontuak eta euskara-unitateak (euskara sailak sortu, egonkortu eta indartzea, horretarako berariazko prestakuntza eta ezagutza duten teknikariekin)
2. **Errealitate soziolinguistikoaren inguruko trebakuntza** erakunde publikoetako langile eta arduradun politikoentzat
3. **Koordinazioa eta elkarlana:** sailen arteko koordinazio-egitura iraunkorrek eta elkarlana
4. **Parte-hartzea eta eragina:** ordezkaritzak sortzerakoan euskararen ezagutza bermatzea, gizarte mugimenduekin zubiak eta elkarlanerako espazioak...
5. **Euskara biziberritzeko ikuspegia lan-prozeduretan:**

<b>INFORMAZIOA SORTU ETA KUDEATU</b>	Geure esku hartzeko eremuetan euskararen eta hizkuntza hegemonikoaren arteko harremana zein den azaltzen duten datuak eta informazioa jaso. Inprimakietan, datu-baseetan, estatistiketan... zein datu jaso behar diren aztertu eta adierazle berriak gehitu behar diren aztertu. Datuak eta informazioa, ondoren, euskararen betaurrekoekin irakurri.
<b>ADMIMINISTRAZIOAK EUSKARAREN ARNASGUNE FUNTZIONAL</b>	Erabilera-planen bidez orain arte egindako bidean sakondu, euskara lan-hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza izan dadin eta erakunde publikoak euskararen arnasmune funtzional izan daitezten.
<b>KOMUNIKAZIOA ETA HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK</b>	Euskararen biziberritzea bultzatzeko erakunde publikoaren komunikazioan euskarari eta gainerako hizkuntzei eman beharreko lekuaz hausnartu eta irizpideak landu.
<b>HIRIGINTZAKO, TURISMOKO ETA MERKATALGUNEETAKO PLANAK (ELE)</b>	Plangintza hauen eragin linguistikoa lantzeko betebeharra eta neurri zuzentzaileak hartzekoa.
<b>PLANGINTZA ETA POLITIKA SEKTORIALAK NAHIZ ZEHARKAKOAK</b>	Hauek euskararen biziberritzean nola eragiten duten aztertu eta euskara biziberritzen lagundu dezaten egokitu.
<b>KONTRATUAK, DIRULAGUNTZAK ETA HITZARMENAK</b>	Administrazioaren kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenen bidez euskararen biziberritzea bultzatzeko, bai zerbitzuak eta produktuak euskaraz eskain ditzaten, bai sortzen diren zerbitzu edo egitasmoetan euskararen biziberritzearen ikuspegia txerta dezaten.
<b>AURREKONTUAK</b>	Aurrekontuek lehentasun politikoak islatzen dituzte. Aurrekontuak aztertzea, beraz, lehentasunak non jartzen diren eta dirua zertara bideratzen den aztertzean datza. Erakundeen aurrekontua eta, ondorioz, politikak euskara biziberritzeko helburura bideratzen diren ezagutzeko aukera ematen du eta, beharrezko bada, neurri zuzentzaileak proposatzeko.

## 2.3. LEHENENGO URRATSAK EMATEKO TRESNAK

Zeharlerrotasuna ulertzeko ikuspegi berri hau praktikan jartzeko anbizioa beharko dugu, baina patxada ere bai. Ikuspegiak ez dira egun batetik bestera aldatzen eta, bestetik, bide berri hau egiteko **modu berriak esploratzen eta egindakotik ikasten** joan beharko dugu. Bide honetan ez dugu dena lehenengoan asmatuko edo nahi bezala egingo, eta akatsetatik eta lorpenetatik ikasten jakin beharko dugu. **Ausardia**, baina, era berean, **umiltasuna** eta **egindakoaren gaineko gogoeta** ezinbesteko osagaiak izango ditugu.

Zeharlerrotasuna ulertzeko modu hau praktikan jartzen hasteko, badaude **bereziki lagunduko luketen alderdiak eta tresnak**. Hauek dira horietako batzuk:

### 2.3.1. DIAGNOSTIKO SEKTORIALAK

Lehen esan dugun bezala, sail guztietan zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko beharrezkoa da **sai horren esku-hartze eremuan euskarak daukan lekua eta zeintzuk hizkuntzen arteko botere-harremanak zeintzuk diren ezagutzea**; abiapuntuko egoera, arazoak eta beharrak ezagutzea, alegia. Adibidez, kulturen, enpleguan, jarduera fisikoan... Diagnostiko sektorialak beharko genituzke, eremu bakoitzeko egoera zein den ezagutzeko. Emakundek berdintasuneko diagnostiko sektorialak ditu eta baliagarriak dira eremu bakoitzeko politikak aztertu eta birpentsatzeko.

- Kultura
- Gizarte-bazterketa eta pobrezia
- Justizia
- Lurralde plangintza eta hirigintza
- Kirola
- Landa-Garapena eta Nekazaritza
- Herritarren Segurtasuna
- Ekintzailletza eta enpresa txiki eta ertainak
- Garraioa eta mugikortasuna
- Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza
- Informazioaren gizarte
- Enplegua
- Ingurumena
- Ekonomia
- Komunikazioa
- Osasuna
- Industria
- Hezkuntza

Diagnostiko sektorial hauek landu litzake HPSk eta guztien eskura jarri. Aukera bat da sail bereko Kulturaren ataletik hastea, adib. baina enpleguaren alorreko diagnostikoa lantzea ere estrategikoa izan liteke.

### **2.3.2. PLANGINTZA OROKORRAK**

Hau guztia martxan jartzeko komenigarria litzateke **euskararen biziberritzean erakunde publikoek jarraitu beharreko bide-orria zehazten duten plangintza orokorrek (ESEP berriak, esaterako) ikuspegi hau txertatzea eta lehenestea**. Ondoren, plangintza orokor horrek eragindako erakunde publikoek beren plangintza propioetan ere ikuspegi hau txertatu ahal izateko.

### **2.3.3. EUSKARA TEKNIKARIEN PRESTAKUNTZA**

Ikuspegi berri hau praktikara eramateko beharrezkoa izango da zeharlerrotasunaren estrategia bultzatu behar duten euskara-teknikariak praktika berri honi ekiteko prestatzea. **Ikastaro teoriko praktikoak** izan beharko lukete, edukia eta tresnak eskainiko dituztenak eta, era berean, pixkanaka bidea elkarrekin egiteko bide emango dutenak. Adibidez, lan-saio batean lan-ildo batean sakondu eta hurrengo lan-saioa bitartean bakoitzak bere erakundearen praktikan jartzeko zeregin bat zehaztu; ondorengo lan-saioan erakunde bakoitzean egindakoak partekatu, ikaspenak atera eta elkarrekin bidea egiten joateko.

Euskara-teknikari bakoitza bere erakundearen bakarrik jardun ordean, bide hau elkarrekin egiteko aukerak sortzea ezinbestekoa izango da.



### 3. HURRENGO URRATSAK

Aurreko atalean aipatutako tresnak sortzeaz gain, **euskara-teknikariekin ikuspegi berri honen proposamena partekatu eta eztabaidatzea** ezinbesteko urratsa izango da. Gogoeta eta elkarriketa-fase bati ekiteko garaia da, beraz.

